

«Bi nazionalismo nafarrak»

Gu, nafarrok saiakeran gaur egun Nafarroan «lehan» dauden bi nazionalismoak salatzen ditu Zabaltzak: «Erronka, sentimendu nazional guztiak biltzen dituen erkidegoa sortzea da»


AINITZE AGIRREZABALA
Donostia

Nafarroa, arragoa. Xabier Lete poetak kanta zuen gisara, garbi dago Nafarroa haize lekua badela. Nafarroan bi haize nagusi dabilzala uste du Xabier Zabaltzak (Tutera, 1966) argitaratu berri duen *Gu, nafarrok* (Alberdania) liburuan: nabarrismoa bate-tik, euskal nazionalismoa, beste-tik. «Liburuan bie uztan dizkiet agerian lotsaria eta bie egiten diet kontra». Idazlearen ustez, elkarbizitzarako proposamen zehatz bat da. «Zuek, nafarrok, ulertzeko aukera paregabea da liburu hau».

Barrenean sartuta zeukan arantza atera du Zabaltzak. Aspalditik zuen euskaraz idazteko gosea, orain artean idatzitako bi liburruak, nazionalismoaz, erdaraz egin baititu. «Euskaraz, erdaraz ez dagoen askatasun bat dago. Gure zaborra besteen ikusgai ipini gabe, etxean bertan uzteko aukera ematen du euskaraz idazteak». Hala iritzi zuen Zabaltzak, *Gu, nafarrok* saiakera aurkezteko atzo Donostian egin zuen agerraldian.

Liburua idazteko abiapuntu moduan Jon Fusterrek (Valentzia, 1922) idatzitako *Nosaltres els valencians* (1962) (*Gu, valentziarrok*) saiakera hartu du Zabaltzak. Horren kariaz, Fusterrek Valentziari buruz esandakoak Nafarroari aplikatu dizkio.

Saiakera politikoa da, nafarren nortasunez. Zabaltzak argi utzi nahi izan du liburuan ez duela nabarrismoaren apologiarik egin; haren asmoa ez dela beste nazionalismo bat sortzea. Saiakera hone-tan idazleak egun «Nafarroan el-



Xabier Zabaltza, *Gu, nafarrok* liburuaren egilea. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

kar errespetatzen ez duten eta lehan dauden bi nazionalismoak» salatzen ditu. Zabaltzak irudikatzen dituen nazionalismo horiek ezezkioan oinarritzen dira: euskal nazionalismoak espainiartasuna ukatzen du eta espainiar nazionalismoak nafarren euskaltasuna. «Nafarroa abertzaletasunaren hutsagiterik handiena da, baina euskal arazoa konpontzeko gako bat ere bai», Zabaltzaren esanetan.

LIBURUA



- **Izenburua.** *Gu, nafarrok*
- **Egilea.** Xabier Zabaltza (Tutera, 1966).
- **Orrialde kopurua.** 110

Horregatik, Zabaltzak uste du errealtatean oinarritzen ez diren irudikapen partzial horiek gaitzetsi du. Baiezkoan oinarritutako nortasun bat sortzeko garaia da historialari nafarrarentzat. «Ez inoren kontra, guztien alde baizik». Izan ere, egilearen ustez, «afera ez da nazionalismo bat bestea garaitzea, sentimendu nazional guztiak biltzen ahal dituen erkidego berri bat sortzea» baizik. Horixe da Nafarroaren eta nafarren erronka.

BI BUKAERA. Gatazka politikoa horretan liburuak bi bukaera aurreikusten ditu. Kapitulu batean bukaera «baikorra» dago. Nortasun nafar bat sortzen da eta horretan, nafarrekin diferentziak biltzeko elkarrenganako errespetua dute. Bigarren bukaera «triste» da. Kapitulu horretan, nafarrak ez dira gai haien diferentziak. Euskara barne, elkarganatze eta uztartze. Ez dira gai haien bi nortasunak biltzeko eta, ondorioz, arazo zibil bat sortzen ahal da Nafarroan.

75 literatur lan jarri nahi dituzte ONCEk eta Jaurilaritzak Itsuen eskuragarri

ERREDAKZIOA
Donostia

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak eta Espainiako Itsuen Elkartea Nazionalak, ONCEk, lankidetzahitzarmena sinatu zuten atzo, euskarazko literatur lanak eta euskarazko gaztelania hiztegi bat tekniko egokitzeko, ikusmen urritasuna duten pertsonen ere irakur ditzaten. ONCEk euskarazko 75 lan aukeratu eta Braille sistemara pasako ditu. Halaber, pertsona itsuen-tzak Daysi izeneko euskarri digitalen grabatuko ditu lan horiek.

Horiez gain, pertsona itsuek erabiltzeko moduko euskarazko gaztelania hiztegi elektronikoa garatuko du ONCEk. Eta euskaraz dakitenei egun eskura duten liburu-funtse berri emango diete.

Kultura Sailak aurrekontu osoaren %65a, 70.000 euro jarriko ditu egitasmoa aurrera ateratzeko, eta gainerakoa ONCEk ipiniko du.

Zaldibarko Udalak Correosen aurka izandako eraso gaitzetsi du

ERREDAKZIOA
Bilbo

Zaldibarko (Bizkaia) Udalak «kemenex» gaitzetsi du herenegun gauean Correosen bulegoari egindako eraso. EAJko alkate Igor Barrenetxeak proposatu du eraso gaitzestea, PSE-EE eta EAJko zinegotzien babesarekin. Berri agentziek adierazi dutenez, Javier Tera ordezkari sozialistak deia egin dio ezker abertzaleari, «herritarrei eguneroko bizitza egiten bakean uzteko eta behingoz politika egiten hasteko» esanez. Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, 00:30 aldera likido sugarria jaurti eta su eman zuten hainbat pertsonen Correosen bulegoaren sarreran. Ondorioz, bulegoa bi egunez itxi dute.

DATUAK

5,5

Eusko Jaurilaritzako Justizia, Lan eta Gizar-te Segurantzako Sailak 5,5 milioi euroko diru-laguntza emango die 68 entitateri, gizar-teratzeko premialdiko langileak –teknika-riak eta administrazioak– kontratatatzeko. Gipuzkoako 35 entitatek milioi eta erdi euro inguru, Bizkaiko 25ek ia hiru milioi euro eta Arabako beste zortzik ia milioi euro bat jasoko dituzte laguntzetan.

Gizon bat eta haurdun den emakume bat zauritu dira sute batean

USURBIL. Gizon bat eta haurdun dagoen haren emaztea zauritu ziren atzo Usurbilen (Gipuzkoa), etxean sutea piztu zitzaizela-eta. Bikotea eta adin txikiko haurra etxeko bal-koira atera ziren, eta udal langile-en zein suhiltzaileen laguntzaz lortu zuten kalera ateratzea. Ospitale-eraman zuten bikotea, eskuetan erredurak zituztela.

Bizkaiko Aldundiak 120 ubarroi hiltzeko asmoa duela salatu du Izatek

BILBO. Izate talde ekologistak salatu du Bizkaiko Foru Aldundiak 120 ubarroi hiltzeko asmoa duela. Izokin eta amurraien berreskuratzeko argudiotzat baliatzea «faltzuz-tza» jo du elkarteak. Izatek uste du batez ere aisialdiko arrantzagatik hil nahi dituztela hegaztiak.

Ortuzarrek EITBko kargua «beregala» uzteko eskatu du PPK

GASTEIZ. Andoni Ortuzar EAJren Bizkaia Buru Batzarreko (BBB) lehendakari gaitzetsi izateko hautagaitza aurkeztu dela eta, Ortuzarrek EITBko zuzendari nagusi kargua «beregala» utzi dezala eskatu du PPK. Eusko Legebiltzarrean aurkeztu du ekimena. Telebista publiko zuzendaria alderdi jakin bateko izatea gaitzetsi dute.

BANAKETA ENPRESA batek prentsa banatzaileak behar ditu Bilbon eta Durangaldean

Lan baldintzak:

- Asteaz sei egun, asteartetik igandera.
- Egunean 4 ordu.
- 04:00etatik 08:00etara.

Beharrezkoa da autoa izatea

Interesatuak deitu telefono honetara: 943-30 35 33

Atxondo Garatzen, s.l.
Atxondoko Udaleko Sozietate Publikoa

HORMA HILOBI ETA HEZURTEGIAREN ZIMENDUAREN ESLEIPEN PUBLIKOA AXPEKO HILERRIAN ATXONDON

Eskaintzak aurkezteko azken eguna: ABENDUAK 1 5.

Lizitazio prezioa: berrogei ta zortzi mila euro **78.206,56**

Dokumentazioa: Baldintza Pleguak eta proiektua, Atxondoko Udaleko Bulego, eta web cunean Teknikoetan bil daitezke, bihurtik aurrera.

Atxondon, 2007eko azaroaren 15an. Presidentea

Kontratazio abisua

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) honako kontratazio hau jartzeko deia ematen du: Ibilgailu industrialek (autobusak eta kamioiak) gidatze eraginkorri buruzko ikastaroak ematea.

Gehienezko aurrekontua: 100.000 euro (BEZ gabe)

Dokumentazioa eskuratzeko: www.eve.es

Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 2007ko abenduaren 19ko 12:00ak arte, EEEren bulegoetan.



EVE Eusko Erakundeak

